

Kirola

Osasun fisikoa - Euskara

Inma eta Iker etxean sartzen dira, guztiz akituta. Korrika egitetik datoz, praka motzak eta tirantedun kamiseta jantzita. Izerditan blai eta guztiz jota daude. Egongelan sartu eta gurasoak, Santi eta Ane, sofan jarrita daude. Kuriositatez begiratzen diete. Inma eta Ane egongelan bertan dagoen baskula batera gerturatzen dira.

IKER

Hau da hau nekea...

INMA

Lau ordu geratu gabe esan genuen eta horrela izan da.

Ikerrek bere burua pisatu du.

IKER

Nik hemen ez dut ia aldaketarik ikusten.

INMA

Ea, utzi niri... Bada, berdin...

IKER

Hau alper-alperrik da... Nik ez dut alderik nabari... Abdominalak non demontre daude?

INMA (*gerraldean zinta metriko bat jartzen duen bitartean*)

Nik ere hemen ez dut inolako aldaketarik ikusten.

IKER

Bihar, bada, lan bikoitza eta menditik! Zer da pistatik ibiltze hori!

INMA

Aldapa harriz eta sastrakaz beteta dago, baina, beno, bai, bertatik joango gara.

IKER

Eta atseden hartzeko geratu gabe, e? Den-dena eman arte!

INMA

Hori da, eta orkatilan pisua jarriko dugu, esfortzua areagotzen duela diote-eta.

IKER

Bai, eta motxila bat ere hartuko dugu, kilo pare bat barruan sartuta.

INMA

Ados, eta baraurik joango gara!

IKER

Baraurik? Zer diozu! Aurreko egunetik ezertxo ere jan gabe!

INMA

Hori da, hori da, bada-eta emaitzak ikusten hasteko ordua...

IKER

Bai, egia da, abdominalak ez dira-eta inondik inora ageri...

Ane eta Santi adi-adi begira daude, pixkat bat nahastuta...

ANE

Gauzatxo bat...

IKER

Esan, ama...

ANE

Zertarako ari zarete ba kirola egiten?

IKER

Zergatik? Uda ate joka dago eta bainujantzia jartzeko prestatzen ari gara!

ANE

Eta gozatzen ari al zarete? Hobeto sentitzen al zarete?

IKER

Egia esan, gaur distantzia erdia egin izan bagenu, niretzat nahikoa zen...

ANE

Eta pare bat aldiz geratu izan bagina ere, txarto ez...

IKER

Zerbait aitortuko dizut: distantzia txikiagoak egiten genituenean ni neu hobeto sentitzen nintzen...

ANE

Ikusten?

IKER

Bada, arrazoi duzu, nik orain lo kuluxka eder bat botako nuke erlaxatzeko...

INMA

Idea bikaina, lo kuluxka eder bat eta gero afaltzera...

ANE

E, e, e! Gehiegi ere ez erlaxatu gero, gaur zuei bioi tokatzen zaizue-eta afaria prestatzea! Hori bai dela benetako kirola...

SANTI

Benga, bada, aurrera kirolariok!